

Azkenean etorri da guztiok dakizutena: Erregek, Euskaltzaindiari nortasuna aitortzen zaion lege hori, eman duela.

Urrats handia izan dela uste dut, eta batez ere gerorako, ondorio on eta zoriontsuak ekarriko dituen.

EUSKAL-IRAKASLE TITULUA EMATEKO EPAI-MAHAINA

L. Villasante

Jaunak:

Euskaltzaindiak gaur dituen arazo eta zereginik premiatuenetako bat da, besteak beste, euskal-irakasle tituluak ematea. Gaur diot. Bihar-etzi ez dakit.

Berez, bere izatez edo egitez, euskera-kontuak egoera normal batetan baleude, Euskaltzaindiak ez luke arazo horretan zer sarturik. Legearen aurrean euskeraren egoera ez dela gaur normala eta behar lukeen bezalakoa frogatzen hasi beharrik ez dago, ordea.

Eta bien bitartean, inori izatekotan, Euskaltzaindiari dagokio arazo hau beregain hartzea, eta hala egin ere du eta egiten ari da sortu zenez geroztik. Bera da Euskal-Herrian euskal-gauzen ardura izateko jarririk dagoen Institutuzio bakarra, Euskal-Herriko Diputazioek hortarako berariaz sortua, Euskal-Herria eta euskara bere osotasunean eta hedadura guztian hartzen duena, euskara begiratzea, lantzea eta ikertzea helburu bezala duena, Euskal-Herri eta euskalki guztieta-ko lankideez osatutako batasuna, etab.

Gure Arautegiaren lehen artikuluan j) letran, gure zereginen artean honako hau dator: "hartako titulu eta ageriak ematea" ("expedir los oportunos títulos y certificados").

Eta ez da ez hau oraingo arazoa. Lehen ere, gerra aurreko garaian, alegia, hala egiten zuen Euskaltzaindiak. Adibidez, Diputazioaren aginduz, hauzo-ikastoletan edo euskeraz jakitea haintzat hartzen zen eskoletan maisu izan nahi zuenak, euskeraz bazekiela Euskaltzaindiak jarritako tribunal baten

aurrean frogatu behar zuen. Beraz, Euskaltzaindiaren agiria eskatzen zuten gure agintariek.

Azken urteotan, guztiok dakizuten bezala, eta zorionean, hagitz ugaritu dira ikastolak eta modu batera nahiz bestera euskara irakatsi nahi duten lekuak. Eta hortik etorri da euskal-irakasleen arrakasta eta premia gaur aparteko modu batean eta sekula ez bezala nabaritzea.

Premia honi erantzuteko Euskaltzaindiak Euskal-Irakasle Titulua sortu zuen (Ikus *Euskera* 1972, 220). Eta geroztik makina bat jaun eta andre, batez ere gazte jendea, etorri da guregana titulu horren eske, eta anitzek lortu ere du (Ikus *Euskera* 1973, 244; 1974, 387).

Esan beharrik ez dago, ordea, seriotasun pixka batekin egingo badira gauzak (eta hala behar dira, duda gabe, zeren bestela tituluak berak laster galduko bai luke bere baliorik gehiena), arazo honek bere estrukturazio eta prozedura ongi loturik eta finkaturik izan behar duela.

Horretarako orain baino lehen Euskaltzaindiak etsamine-tarako epai —mahaina izendatu zuen eta mahain hortako jaun-en esku utzi izan du etsaminak egitea eta titulua nori eman behar zaion erabakitzea, nahiz eta gero titulu horren agiriak eta diplomak euskaltzainburuak berak firmatu.

Ikastaroak ere antolatu izan dira, etsaminetan eskatuko dena nahi duenari errazkiago ikasteko bide bat eman nahiz. Baina, jakina, honek ez du esan nahi titulua atera ahal izateko ikastaro hoiak egitea noraezeko eta baitezpadakoa dela. Eta gainera ikastarook bestek ere antola ditzake, nahi baldin badu. Hontan guk ez dugu monopoliorik jarri nahi.

Baina lehen esan dudan bezala, gauzak seriotasun pixka batekin egingo badira, beharrezkoa da tituluok norinahiden eta nolanahi ez ematea. Eta hortarako, bai, etsamina batzuen eta tribunal baten beharra ikusten da.

Euskaltzaindian gauden guztiok ez gaude —ezin egon gindezke— Euskaltzaindiko zeregin guztietarako, hori ez da posible; orotarako orok gai izatea ere ez da erraz. Hemen ere lanaren partizioa behar da. Orain arte epai-mahain horretan izendaturik egon den zenbaitek bere kargua utzi nahi du. Berriztatze batzuen beharra ere ikusten da, beste alde. Guzti hori dela eta, Irakasle-tituluaz zer ikusi duen batzordea

berriztatu eta era berri batean antolatu behar dela uste du Zuzendaritzak. Tribunaleko mienbro izateko proposatzen dituen guztiak Filosofia eta Letratan lizenziatura dutenak izango dira.

Beraz, *etsaminetako Epai-Mahainerako* honako jaun hauk proposatzen dira:

Alfonso Irigoien jauna, buru (euskaltzain osoa)

Patxi Altuna jauna, buru ordeko (euskaltzain laguntzailea)

Xabier Kintana, (euskaltzain laguntzailea)

J. A. Letamendia, (euskaltzain laguntzailea)

Enrique Knör, (euskaltzain laguntzailea)

Jestio konturako, berriz, *Juan Jose Zearreta*, euskaltzain laguntzailea. Honen zeregina izango da etsaminak non eta noiz diren jakin arazitzea, deiak egitea, eta abar.

Ikastaroak eratzeko batzordean, berriz, sartuko dira jaun hoiak berak eta, hoietaz landara, beste jaun hauk:

Imanol Laspiur, (euskaltzain laguntzailea)

Xabier Mendiguren (euskaltzain laguntzailea)

Jesus Atxa (euskaltzain laguntzailea)

eta ipar aldetik *Manex Goihenetxe* (euskaltzain laguntzailea) (behintzat hango euskaltzainek beste izenen bat proposatzen ez badute). Eta garbi geldi bedi honako puntu hau: Jaun hauk dira, eta ez beste inor, Euskaltzaindiak titulu emate arazo honetarako izendaturik daduzkanak. Igarriko zenuten, noski, zergatik esaten dudan hau. Aspalditik dabil zenbait joko uher hau egiten. Bera ere Euskaltzaindikoa dela, eta beraz Euskaltzaindiaren izenez baliatzen da, baina, bistan da, gauza bat da Euskaltzaindikoa izatea eta beste bat Euskaltzaindiaren mandatua eta izendapena horretarako izatea. Eta oraindik negargarriago dena: hasi omen da edo hasteko omen dago elkarteren bat bere aldetik tituluak ematen eta hoiien homologazioa ministeriora eskatzen. Duela bi aste aritu da hortaz Amatiño *Zeruko Argia*-n ("Ofizialtasun ezaren ondorioak", urriak 19, 1975, 4.or.).

Gauzak horrela daudelarik, eta hortik sor daitekeen nahaspila eta tituluaren desbaloratzea erremediatzeko, guri ez zaigu beste biderik gelditzen haxe baizik: Euskaltzaindiak

ematen duen titulua baliosa eta estimatua bihurtzea, horretan saiatzea eta lan egitea. Eta, hain zuzen, horretarako izan da Epai-Mahainaren eraberritze hau.

Bukatzeko, ohartxo bat bakarrik. Gure idazkariak gogoratu du puntu hau, eta arrazoi osoz, uste dudanez. Ematen dituen titulu guztien fitxeroa gorde behar du Euskaltzaindiak; eta fitxero horretan ez bakarrik izena eta zuzenbidea, baita ere xehetasunak eta bakoitzaren "curriculum vitae" gorde behar da. Zeren maiz etortzen dira Euskaltzaindira eskeak euskal-irakasle baten bila. Eta eske hoiei nekez erantzun diezaiekegu baldin tituludunen izen soila bakarrik badaukagu. Besterik da bakoitzaren xehetasunak, egin dituen estudioak, zer ofizio edo ogibide duen eta abar dakigunean.